



Nelson Mandela.

Mandelak Castro goraiatu zuen Washingtonen

WASHINGTON

Nelson Mandela Afrikako Kongresu Nazionalako liderrak Fidel Castro estatuburu cubatarra goraiatu zuen Washingtonen. Mandelak esan zuenez, Hego Afrikako apartheid sistemaren kontra borrokatu zutenean Castrok laguntza osoa eskaini zien. «Printzipioak dituen gizon batek ez ditu inoiz bere lagunak ahazten», esan zuen Mandelak Castri buruz hitzegiterakoan.

Castrok eskaintako laguntza gogoz eskertu zuen Mandelak kazetari estatubatuarren aurrean. «Cubara joan ginenean ate guztiak irekita aurkitu genituen eta Castrok borroka armatua antolatzeke medio guztiak eskaini zizkigun». Mandelak, Estatu Batuetan lider cubatarren duen irudia kontutan hartuta, Castro defendatzeko arrazoiak zituela ziurtatu zuen. «Lagundu zigun gizon bat ezin dugu orain gaitzetsi. Nola kondenatu eta traizionatuko dugu mendebaldeko nazioak gure alde jarri ziren arte laguntza eskaini zigun lagun bakarra», esan zuen Mandelak. «Mesedez ez eskatu gure printzipio moralak zikinduko lituzkeen gauza bat egitea», zion Hego Afrikako liderrak. Mandelak Washingtonen dagoen ordezkari palestinararekin biltzeko asmoa duela ere jakitera eman zuen.

Lehendakaritzarako hauteskunderen aurrekanpainari ekin dio Bushek

Lehendakari iparramerikarra ziur dago berriro hautatua izango dela

George Bush lehendakari estatubatuarrek herenegun ekin zion Estatu Batuetako Lehendakaritzarako hauteskunderen aurrekanpainari, kanpainarako taldea osatu bait zuen. Bere Gobernuan ere zenbait aldaketa egin zituen, askoren ustez irudi aldaketa emateko berregituraketa izan dena. Dena den, berrautapenerako kanpainari ofizialki urtarrilean ekingo diola adierazi zuen Bushek.


WASHINGTON

1992ko azaroan izango dira hauteskundeak eta egungo lehendakari iparramerikarra ziur dago berriro hautatua izango dela «lehendakari ona naizelako». Hil honetako lehendabiziko prentsaurrekoan, Bushek iragarri zuen Samuel Skinner, orain arteko Garraio idazkaria izango dela bere kabineteko buruzagi berria, eta kargu horretan aste honetan bertan dimisioa aurkeztu zuen John Sununu polemikoa ordezkatzeko du.

Hauteskunde kanpainarako, berriz, lehendakari iparramerikarrak bere adiskide min eta kabineteko Komertzio idazkaria, Robert Mosbacher, izendatu du buruzagi modura. Kanpainarako taldea Robert Teeter inkestagile aditua, Fred Malek enpresaria eta Charles Black kontseilari politikoarekin osatu du Bushek.

Talde horrek egingo du Bushen berrautapen kanpainaren estrategia eta Dan Quayle lehendakariordearekin harreman zuzena izango du. Ohizkoa denez, lehendakariaren Gabineteko buruzagiak kanpainako koordinazio lanak egingo ditu, eta horregatik adierazi dute adituek Bushek Skinner izendatu duela Sununuren ordezkari kabineteburu.

Skinner, gizon pragmatikotzat eta



Bushek uste du berriro hautatua izango dela «lehendakari ona naizelako».

gai nazionalen jakituntzat jotzen duten denek eta Kongresuarekin negoziatzaile abilaren ospea du. Besteak beste, Bushek hainbeste traba izan dituen garraio eta transitoaren gaian lege garrantzitsuak aurrera eramatea lortu du. Orain, lehendakari iparramerikarraren irudia hobetzen saiatuko da. Aspaldi honetan, Bushen popularitatea asko jaitsi da, EEBBek bizi duten krisi ekonomikoari behar den bezala erantzuten jakin ez duelako. Lehendakari iparramerikarrak Lehendakaritzarako hautagai aurkeztu aurretik, ordea, Alderdi Errepublikarreko hautagaien artean lehiatu beharko du. Horien artean dago David Duke, Ku Klux Klan taldeko buruzagi ohia eta duela aste batzuk Louisianako gobernadore izateko hauteskundeetan aurkeztu zena.

✓ **Hauteskunde kanpainarako lehendakari iparramerikarrak bere adiskide min eta kabineteko Komertzio idazkaria, Robert Mosbacher, izendatu du buruzagi.**

Marokkotik Saharara ez da jadanik etorkin gehiago joaten

AIUN

Saharako autodeterminazio erreferenduma dela eta Marokkotik alde egiten duten etorkin andana eten egin da ia erabat, Nazio Batuetako begiraleek diotenez. Orain arte Saharako autodeterminazio erreferendumean parte hartzeko eskubidea eskatzen duten 30.000 lagun joan dira Marokoko hegoaldeko Saharara.

Marokkoko Gobernuak eta Nazio Batuek aurretik aurre daude erreferendumean erabili behar diren botoemak le zerrendak direla eta. Nazio Batuek espainiarrek 1974. urtean egindako zentsua erabili nahi dute, eta Marokok, berriz, zentsu honetan beste 50.000 lagun sartu nahi ditu. Dris Basri Marokkoko Barne ministroak esan duenez, erreferendumean botoa emateko ezarri diren baldintzak ez dira bertako jendearen jatorria kontutan edukita ezarri.

Marokkoko Barne ministroak Nazio Batuek eta Marokoren arteko harremanak ez aurrera eta ez atzera ez dutela egiten aitortu du. Hau dela eta, Hasan II erregeak esan zuen bezala, Saharako autodeterminazio erreferenduma ezin izango da 1992. urteko urtarrilean egin.

LABURREAN

EEBBetako kostazainek 8.000 haitiar harrapatu dituzte

Estatu Batuetako kostazainek 1991. urtean 8.173 haitiar harrapatu dituzte Haititik ihes egiten saiatzen zirenean. Iturri estatubatuarrek adierazi dutenez, Guantanamo basean 4.500 haitiar daude Haitira noiz bidaliko zain. Clyde Atkins epaile estatubatuarrek haitiarrak aberriratzeko debekatu badu ere, presio ugari jasotzen ari da haitiarrak bidaltzeko agindua eman dezan. Washingtonen Justizia Departamenduak Atkins epailearen debekuak haitiarrei Estatu Batuetara joatera bultzatzen dietela azaldu zuen.

ALJERIAk 510 milioi dolar jasoko ditu Brussetetik

Aljeriako Gobernuak 510 milioi dolar jasoko ditu Europako Komunitatetik kanpo merkataritzan duen defizita zuzendu ahal izateko. Laguntza horren lehen zatia, 315 milioi dolar, Aljeriak berehala jasoko du eta gainontzeko dirua sei hilabete barru eskuratu ahal izango dute Aljerreko agintariek. Aljeriari eskainitako dirulaguntza hau Europako Komunitatea eta Afrikako iparraldeko nazioen arteko kooperazio programaren barruan dago.

GUATEMALARA 11.000 errefuxiatu itzuliko dira

Guatemalako Errefuxiatuen Babeserako Erakundeak adierazi duenez, 1992. urtean 11.000 errefuxiatu itzuliko dira Guatemala. Errefuxiatu horiek Guatemala gerra zibila zela eta Mexicora ihes egin zuten eta han egon dira orain arte. Errefuxiatuen aldeko erakundearen esanetan, errefuxiatuak nekazariak dira eta askok Gobernuak osatutako autobabeserako nekazal milizietan ez parte hartzeagatik Mexicora ihes egin zuten.

TOGO: Oposizioak grebarako deia egin du

Togoko oposizioak alderdiek greba orokorrerako deia egin zuten atzo eta egungo Gobernu kolpistaren aurkako mobilizazio herritarra egiteko eskatu zieten herritarrei. Greba deialdiak ez du harrera onik izan behin-behineko Gobernuan eta Joseph Koku Kofigoh-ek, militarrek Gobernutik bota zutenak ere langileei dei egin zien atzoko iragarrita zegoen manifestaldira ez joateko.



ASTE HONETAKO ARGIA

- ❖ KUATREROAK, ganaduzaleen amesgaizto berria
- ❖ DONOSTIALDEA hankaz gora
- ❖ SERGE BLANCO: «Rugbya profesionalizatzen bada, gaur egungo ilusioa galduko du»
- ❖ MAASTRICHTeko gailur komunitarioaren aurrean, Europako trena abiadura barik

BIHARKO PRENTSA GAURTIK